

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Uharte Arakilgo Udala Nafarroako bandera fatxadaren lehentasunezko toki batean jartzera zigortu dute

Nafarroako Gobernuak demanda aurkeztu zuen udalak ez zituelako bete sinboloen legea gordetzeko egindako eskakizunak.

Miércoles, 23 de octubre de 2013

Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak, emandako epai baten bidez, Uharte Arakilgo Udala Nafarroako bandera udaletxearen goiko balkoiaren erdian jartzera behartu du.

Epaiaren bidez, Nafarroako Gobernuak Sinboloen Legea betetzeko aurkeztutako demandari erantzun zaio. Sinboloen Legeak jasotzen duenez, Nafarroako bandera ofiziala lehentasunezko tokian jarri behar da eraikin publikoetan.

Epaiak zera jasotzen du: "Udalak foru-bandera jartzeko aukeratutako lekua ez da lehentasunezkoa, goiko balkoiaren izkina batean ipini delako". Foru Gobernuak, aurrez, Huarte Arakilgo Udalari eskatu zion bandera lekuz aldatzeko, Nafarroarekiko errespetu-falta adierazten zuelako. Udalak ez zuen haintzat hartu egindako eskakizuna, hortaz, epaia emateko arrazoia izan den demanda aurkeztu zen. Udalari, gainera, gastuengatik zigorra ere ezarri zaio.

Epaiari aurka egiteko apelazio-errekurtsoa jar daiteke. Horretarako, hamabost eguneko epea eman da, jakinarazpenaren egunetik zenbatzen hasita.